

# Sabino Arana bizirik dago

Andoni Ortuzar

EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarraren presidentea

1865eko urtarrilaren 26an, gaur ezagutzen dugun Bilbo existitzen ez zen garaian, Abandoko errepublikaren bihotzean, karlisten sendian jaio zen Sabino Arana Goiri, zortzi seme-alaben gazteena. Gaurkoa da, beraz, euskal herritar guztiok ospatu beharreko eguna, abertzale izan, zein ez. Duela 150 urte jaio zen, hasierako bultzadizoa eman ondoren, ordutik hona bidea argitu digun su garra piztu zuen pertsona, eta hainbat zailtasun eta eragozpen gaindituta, euskal gizartea oraingo autogobernu, garapen ekonomiko eta sozial eta nazio kontzientziara ekarri duena.

Sabino Arana jaio eta hazi zen gizartea aldaketa sozial, kultural eta politiko handien mende egon zen. Foru sistema indargabetua izan zen karlismoa armaz garaitua izan ondoren; ideia liberal zentralista eta laizistak loratu eta garatu ziren. Garai hartan, batera eman ziren espainiar batasun konstituzional berria, azken koloniak galtzea, iraultza industrialaren hasierak, jauntxokeria, inmigrazioa, langileen esplotazioa, sozialismoaren sorrera... eta, aldi berean, euskal kultura, tradizioa eta hizkuntza –euskara– osatzen zuten nortasun multzoaren galera hasi zen, ordura arteko Euskal Herriaren izaera gorpuztu zuena.

Sabino une hartan heldu zen, Bizkaiaren eraldaketa ordura arte aurrekaririk izan ez zuen krisiaren zurrunbiloan astintzen zen testuinguruan. Eta masifikazio, kapitalismo eta zentralizazio politiko eta kulturala zekarten korrante indartsuek, bizkaitar eta euskal gizartea eszenatoki ezezagunera eramaten ari ziren bitartean, Aranek talde kontzientzia astindu zuen eta foruen indargabetzea baino lehenagotik zetozen ideiak agerrarazi zituen, orduko joera globalizatzaileen aurrean Euskal Herriaren biziraupena bermatu eta finkatuko zutenak.

Aranaren pentsamendua aldaba-hotsa izan zen aiurri guztietako milaka euskal gizon eta emakumeen buru eta bihotzean: langileak eta aberatsak, baserritarrak eta kaletarrak, Bizkaiko Enkarterrietako herritarrak eta Nafar Erriberarrak, zuberotarrak eta errioxarrak. Bere azkenetan zegoen kontzientzia iratzartzea ekarri zuen, desagertzeko zorian zegoen pentsamoldea. Nortasun ezaugarriak behinena hartuta –euskara–, erabat berreskuratzeko helburua jarri zion bere buruari –berak ere galdua baitzuen–. Baina, ekinaren ezinaz, bere inguru hurbilean berreskuratzeaz gain, bultzada handia eman zion gramatikan, ortografian eta etimologia arloan. Esparru publikora eramatea lortu zuen, hizkuntza babestuta zegoen nekazal esparrutik atera, eta hirira eraman zuen. Garai hartako pentsalari eta intelektualak ere mugiarazi zituen beren azterlanak euskal hizkuntzaren inguruan egin zituztenak.

Hizkuntzarena egin ostean eman zuen Sabinok bere hurrengo urratsa. Talde bat identifikatzeko ezaugarria ezarri zuen –Euskal Herria–, eta herritarrek Herri horrekin lotzeko duten borondatearekin uztartzea lotu zuen. Herriak Nazio izaera hartu zuen, nazio hartu zuen bere burua. Subjektu politiko bat ezarri zuen, ordura arteko mendeetan, bere antolaketan, bere erakundeetan –foruak– autogobernu berezia partekatu zuena, baina ordura arte bere errealitatea ‘osotasunean’ ikusi ez zuena. Sabinok XIX. mendean sortu ziren korrante erromantikoak ezagutu zituen, eta bere inguruan aplikatu zuen une hartan eraikitzen ari zen Europa berrian suspertu ziren nazionalitateen printzipio bera.

Halaxe sortu zen Euskadi egitasmo politiko gisa, eta halaxe sortu zen orduko goibururik esanguratsuena: “Euskadi euskotarren aberria da”. Berritzailea, apurtzailea, demokrata, pragmatikoa izanik, Sabino Aranak bere ideala garatu zuen, kontzientziak aberriaren alde irabazteko helburuarekin. Sinbolo batzuk eman zizkion, bandera bat –Ikurrina– eta himnoa –Eusko Abendaren Ereserkia–. Eta, azkenean, indar guztiak metatu zituen bere helburu guztiak lortzeko tresna sortzeko: Euzko Alderdi Jeltzalea. Berezia izan zen Alderdia diseinatzeko orduan ere. Udalerrien berehalakotasunean oinarrituta zegoen alderdia eratu zuen. Konfederala, berak nahi zuen herria bezalakoxea. Botere banaketan sustraituta zegoen egitura, humanismo kristauaren baloreekin konprometitua.

Aranaren konpromiso politikoak, bere aktibismoak –garaikideak konbentzitzeko asmo gisa ulertuta, bere egitasmoa bultzatzeko behar besteko gehiengo izan arte–, agintariak jazarria izatea ekarri zioten, eta birritan eraman zuten espetxera. Baina, gogor zigortua izan zen arren, sekula ez zen ailegatu bidegabekeriari bortxakeriarekin erantzutera. Guztiz alderantziz: isilarazteko derrigorri ideiekin erantzun zion; debekuei, ekitaldi publiko gehiagorekin; galarazpenei, inaugurazio berriekin. Gaixotasun batek, bat batean, goizegi menderatu zuen arte. 38 urte zituen zendu zenean.

150 urte igaro dira Sabinok Albiako etxean lehen argia ikusi zuenetik. Munduak mila bira eman ditu harrezkero. Euskadik, berak izendatu zuen herriak, Sabino bizi izan zen garaian ia pentsaezina zen modernotasun, gizarte kohesio eta garapena gozatzen du gaur egun. Bost urtetik gorako milioi bat eta berrogeita hamar mila euskal herritarrek –%55– euskaldun jotzen dute beren burua (euskara ulertzen eta hitz egiten dute, zailtasunez bada ere). Eta askok euskara hitz egiten ez duten arren, milaka ‘Iñakik’, ‘Jonek’, ‘Koldok’, ‘Igonek’ edo ‘Kepak’ izena sor diote Sabino Aranari. Asko dira ikurrina bandera duten herritarrak, Luis anaiarekin batera hiru kolore gurutzaturik diseinatu zuen bandera.

Sabino Arana gaur biziko balitz, bere begiekin ikusiko luke bere amets eta helburu asko jadanik bideratuta daudela. Bere ideiak milaka hiritarrek partekatzen dutela, eta aberri kontzientzia batek borondate askearen aldarria egiten duela orduko goiburu hura betetzeko: “Euskadi euskotarren aberria da”. Demokrazian oinarri. XXI. mende honetan, gure etorkizunaren jabe izateko eskubidea dugun herritarrak gara, eta ez historia, kultura, tradizioa edo hizkuntza dugulako soilik, baizik eta baita printzipio demokratiko bat dagoelako ere.

Pertsonen borondatea da EAJ-PNVk mende berri honetan islatzen duen burujabetzaren goiburua eta helburua. Sabino Aranaren oinordekoak gara eta, fundatzaile dugun haren ondorengo garen heinean, Euskadiren askatasunerako hasi zuen bideari jarraipena emateko derrigorra dugu. Segurtasunez, irmotasunez eta lasaitasunez hitz eginez. Herritarrek adieraziko dituzten nahi eta erabakiak gogoan. Ezerezera jauzi egin gabe. Bizikidetzeta hautsi gabe. Atxikimenduak batuz. Ezberdinak errespetatuz. Eta Herriari hitza eta erabakia emanez.

Uztailean beteko da Sabino Aranak Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zueneko 120. urteurrena. Gaur, atzo bezala, Euskal Aberria eraikitzeke tresna izaten segitzen dugu. Gaur, atzo bezala, Euskadirekin dugun konpromisoari eusten diogu. Ezerk edo inork ez gaitu bide horretatik aldentuko, ez eta gure ahaleginean ahulduko.